

## Galdera

"On dagizula, untxi jauna!" izenburuko ipuinean honako esaldi hau azaltzen da: Untxi jaunak hartatik tupinatra bat prestatzen du. Zer da **tupinatra**?

## Erantzuna

**eltzekada, lapikokada**

- 1/ Euskaltzaindiko Hiztegia **tupina** begiratzuz gero, esaten digu **eltze** hitzaren sinonimoa dela.
- 2/ Orotariko Euskal Hiztegia, berriz, **tupinatara** sarreran, hauxe azaltzen da:

### **tupinatara.**

**dupinatara** (-ph- Dv), **dupinatra**, **tipiñata**.

Cantidad contenida en un puchero o marmite. "Plein le contenu d'une marmite" Dv. v. **tupinkada**.

*Ligiarrek etziren aberats; nekeztto bildü zien ürhe thipiñata.* Eskual 16-10-1908, 3. *Errauts hortarik dupinatra bat bazauketela.* GH 1924, 159. *Emazteki xahar batek dupinatara bat salda ezartzen zion Betharrameko furnegoaren gainean.* Etcheb MGaric 32.

- 2/ Euskara Batuaren Eskuliburuak, **-kada (-tara)** sarreran, sinonimotzat ematen ditu **-kada** eta **-tara** atzizkiak. Eta, berriro ere Euskaltzaindiaren hiztegia, sarrera hau azaltzen da:

### **eltzetara**

**iz.** *Ipar.* **Eltzekada.** *Egosarazi zuen eltzetara bat lursagar.*

Hortaz, eltzetara = tupinatara dela ondoriozta dezakegu erraz-erraz.